

## KOMUNIKAZIO KANALAK

5 ideia ditugu gure bezeroarekin komunikatzeko:

**Web orri bat** sortuko dugu; gure negozioarako web orri bat edukitzeak irismena biderkatzeko eta publiko askoz zabalagoa izateko aukera emango digu. Web orri honetan gure eskaintza komunikatuko dugu, gimnasioan eskaintzen diren klaseak, ordutegia, tarifak etab egongo dira.

**Blog bat** ere irekiko dugu; gure blog propioa gure enpresa webgunearen barruan edukitzeak gai jakin bati buruz ditugun ezagutza guztiak gure publikoari erakusten lagunduko digu (gure kasuan kirol gai bat da) eta honen medio komunikatu ahal izango dugu, gure publikoarengana iristeko modu bikaina da.

**Email** bat ere sortuko dugu, baita, **telefono fijo bat eta telefono mobila** (astelehenetik-igandera funtzionatzen duena). Modu hauek dira komunikatzeko bide zuzenenak, edozein zalantza edo informazioa eskuratu ahal izango dute.

Azkenik, **sare sozialen erabilpenaren** bidez ere komunikatu ahal izango gara. Instagramen bidez hain zuzen ere, gaur egun sare sozialak oso modan baitaudelako eta oso azkar hitz egin ahal delako. Bertan negozioaren berriak argitaratuko ditugu egunero eta mezu zuzenak erabiltzeko aukera eskaintzen du ere.

## BANAKETA KANALAK

Gure negozioa zerbitzu bat da, lokal batean eskaintzen duguna. Gure bezeroak zerbitzuaren erabilpena egiteko lokalera etorri behar dira. Beraz gure banaketa kanala zuzena da, bezeroa da zerbitzuaren erabilpena egiteko bertaratu behar dira.

Negoziaren kokapena Bilboko Gran Via kalean dago eta bertara ailegatzeko bideak hiru dira nagusiki.

Metro geltokia gertu daukagu, beraz Bilbon zein Bilbo Handiko bezeroak garraio bide hau erabiltzeko aukera paregabea dute.

Bestetik oinez etorriko diren bezeroak izango ditugu, gertu bizi edo lan egiten duten pertsonak izango dira.

Kotxeentzat aparkaleku batzuk ere egongo dira, egia da Bilbo erdian egonda parkinaren tamaina mugatua izango dela, baina bide hau erabiliz etorriko diren erabiltzaile kopurua ere ez da oso handia izango.